

## 9. ANDOAIN LABURREAN

### *Bideo laburren lehiaketa*

#### OINARRIAK 2023-24

#### PARTE HARTZAILEAK

1.- 16 urtetik 29 bitartean duen (1994ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra jaiotakoak), profesionala ez den eta Beterrin edo Aiztondon bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake lehiaketan.

#### LANEN EZAUGARRIAK

2.- Bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, kartelak, elementu grafikoak...), honek euskarazkoa izan behar du nahitaez.

3.- **Gaia** librea da, baina **Andoaingo zubiren bat** azaldu behar du, izan zeharka, izan istorioaren elementu garrantzitsu gisa

4.- Bideoek gehienez ere 7 minutuko iraupena izango dute (kredituak barne).

5.- Lanek lehiaketa honetarako sortuak izan behar dute. Aurkezten diren lanek 2023ko otsailaren 1etik 2024ko urtarrilaren 26ra bitartean errodatuak behar dute izan, originalak, eta beste inon proiektatu gabeak. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

6.- Edozein generotakoa izan daiteke lana: filma, publizitate spota, elkarrizketa, dokumental laburra, bideoklipa, bideoarte, animazioa...

7.- Ez dira onartuko emakumeenganako gorrotorik edota sexu bereizketarik erakutsi-babestu-sustatzen duen edukirik.

8.- Ezin izango dituzte pertsonak beren sexuaren arabera giza duintasun gutxiagokotzat edo goragokotzat aurkeztu, ez eta sexu-objektu huts edo aberasteko produktu gisa ere. Era berean, ezin da aurkeztu emakumeen aurkako indarkeria matxista justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen duen edukirik.

9.- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko da.

10.- Emakumeen parte-hartze aktiboa eta bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatzen dituzten edukiak sortuko dira, edertasun-kanonak eta estereotipo sexistak alde batera utzita.

#### NOLA AURKEZTU LANAK?

11.- [www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus) eskuragarri dagoen FORMULARIOA BETE.

12.- *My Air Bridge* ([www.myairbridge.com](http://www.myairbridge.com)) bidez bidali daitezke bideoak euskarazerbitzua@andoain.eus postara.

13.- Lanak bakarkakoak edo taldekakoak izango dira eta partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, bakarka zein taldeka bada ere.

14.- Lanak aurkezteko baliatu daitezkeen artxibo motak honakoak dira: .mov, eta .mp4.

### **ERANTZUKIZUNA**

15.- Antolatzaileek ez dituzte nahitaez bere egiten aurkeztu diren lanetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota jasotako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik. Era berean, antolatzaileek lehiaketatik at utziko dituzte hirugarren pertsonen irudiari, ohoreari eta integritateari kalte egin diezaieketen lanak.

Egileak aitortzen du aurkeztutako lanaren eta haren edukiaren arduraduna dela.

### **16.- Erreproduktzio eta zabalkunderako eskubideak:**

- Onartutako bideoen egileek Andoaingo Udaleri uzten dizkiete euren irudien komunikazio eta erreproduktzio-eskubideak.
- Antolatzaileek beren gain hartzen dute bideo batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea; batetik, giza eskubideen urraketa, bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu faltak adierazten duten lanak eta, bestetik, aurretik aipatutako baldintzak betetzen ez dutenak ere.

Informazio gehiago: [www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus) webgunean, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan (Urigain kulturetxea), edo Andoaingo Bideo eta Zine Eskolan.

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua: 943 300 831

[euskarazerbitzua@andoain.eus](mailto:euskarazerbitzua@andoain.eus)

### **LANAK AURKEZTEKO EPEA**

17.- 2024ko urtarrilaren 26a (ostirala) izango da lanak aurkezteko azken eguna.

### **SARIAK**

18.- Hona lehiaketako sariak:

1. Saria: 500 euro.

2. Saria: 300 euro.

Ikusleen saria: 150 euro

Ikusleen botoak urtarrilaren 30etik otsailaren 8ra arte jaso ahal izango dira Andoaingo Euskara Zerbitzuko webgunearen bidez ([www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus)).

Epaimahaiak sariren bat eman gabe uzteko ahalmena izango du.

### **EPAIMAHAIA**

19.- Hiru adituk osatutako epaimahaiak erabakiko ditu sariak, betiere aurkeztutako lanen kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta. Honakoak dira epaimahaikideak: Itziar Otxoa, ekoizlea, Iñaki Gereñu, Igora Films ekoiztetxeko kidea eta Alex Tello, aktorea, gidoilaria eta zuzendaria.

### **SARI BANAKETA**

20.- Sari banaketako ekitaldia **2024ko otsailaren 15ean** izango da, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00etan. Bertan jakingo da epaimahaiaren erabakia eta bertan lan onenak proiektatuko dira.

### **BALDINTZETAN ALDAKETAK**

21.- Aurreikusi gabeko gertakariren bat suertatuko balitz, lehiaketako oinarri hauek aldatzeko aukera antolatzaileen esku gelditzen da, hau da, Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizaziorako Batzordearen esku.

### **ANTOLATZAILEAK**

**Andoaingo Udaleko Euskara Saila eta ESCIVI** (Andoaingo Zine eta Bideo Eskola)